

errezeta


Urdaiazpiko, gazta eta bexamel krepeak (lau pertsonarentzat)

Osagaiak: 12 krepe, 6 urdaiazpiko xerra, 6 sandwich-gazta xerra, 1/4 litro bexamel eta 50 gramo gazta birindu.

Krepeak beroak edukitzeko, labean sartu, tenperatura apalean, eta aluminiozko paper batekin estali. Urdaiazpiko xerrak

erditik moztu, eta gazta xerrak zerrendetan moztu. Krepe bakoitzaren gainean urdaiazpiko xerra erdia eta bi edo hiru gazta zerrenda ipini, eta biribil bat eginez tolestu.

Jarraian, laberako ontzi batean jarri, bexamel saltsarekin estali, eta gazta birindua bota gainetik. Azkenik, labean sartu, denbora gutxi, eta gainetik erre. Bukatzeko, krepeak bero jarri mahai gainean.



EGUNKARIA

Abertzaletasunaren Museoa, Manu Egilor aretoa.

'Paisaiak'. Martxoaren 27tik ikusgai Diana de Orberen margoak, Chufo erakusketa aretoa (Iparragirre kalea, 17).

Liburuaren erakusketa. Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, apirilaren 9a arte, Liburuaren Etxean (Colon de Larreategi, 41).

DONOSTIA. 'Indiako miniaturak'. Apirilaren 28a arte zabalik izango da San Telmo museoa.

Kikis Alamoren 'Paperetan Blai'. Apirilaren 20ra arte, Koldo Mitxelenako Ganbera aretoa.

Eduardo Arroyoren 'Pinturak, terrakotak eta harriak'. Maiatzaren 30 arte, ikusgai izango dira Kutxaren Kubo aretoa. Kutxaren erakusketa aretoa.

Arantxa Arratibel margolariaren erakusketa. Apirilaren 13a arte, Marruma elkarte.

DURANGO. Martina Dasnoyren lanak. Maiatzaren 12a arte, Beitu Art Gallery aretoa.

ERRETERIA. Bost euskal artistaren pinturak salgai emakume sahararren alde. Mikelazulo elkarte.

Felix Garcia Morillonaren Askatasunaren bideak.

Aurkezpena bihar, arratsaldeko 19:00etan, CGTren egoitzan.

GASTEIZ. 'Irudi bat, ala mila hitz'. Apirilaren 30a arte, Jastepi taberna.

GERNIKA. Rafael Ogetaren erakusketa. Apirilaren 9a arte egongo da zabalik, Gernikako Kultur Etxean.

LEGAZPI. 'Zubieta XXI' Realaren inguruko erakusketa ibiltaria. Apirilaren 19a arte kultur etxeko erakusketa aretoa.

Haur eta gazteen liburu erakusketa. Apirilaren 26a arte, kultur etxeko erakusketa aretoa.

OÑATI. 'Basoen baso'. Apirilaren 28a arte, Oñatiko Natur Eskolan dago ikusgai.

SESTAO. 'Kemena'. Apirilaren 11tik 14ra ikusgai izango da Sestaoko erakusketa azokan. Paralinpiar jokoei buruzko argazkia.

PASAI. 'Paisaiako Badia: gaur'. Iñaki Bilbaoren 32 koadro martxoaren 26tik aurrera izango dira ikusgai.

TAFALLA. Jose Antonio

bertsolaritza

Altzako Bertso Astea. Bihartik larunbatera bitartean, Txalaka Elkarteak antolatuta.

Bertsozaleentzat propio prestaturiko egitaraua

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Bertsolaritza gustuko duen orok horretaz gozatzeko aukera ezin-hobea izango du datozen egunotan. Izan ere, Donostiako Altzako Txalaka Elkarteak bertso-astea antolatu du bihartzik larunbatera bitartean. Txalakaren ekimenak Donostia Kultura eta Casares Kultur Etxearen babesa izango du.

Joxerra Garzia Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleak irekiko du bertso-astea bihar. *Bertsolaritza (lehen, orain eta gero)* izenburua duen hitzaldia emango du Garziak, arratsaldeko 19:30ean, Altzako Herri Ikastetxean. Etzi, aldiz, Jon Maia eta Xabier Amurizaren txanda izango da. Bi bertsolariak *Mende baten aldarrak hogei-garrenean jarriak* izeneko bertso-ikuskitzuna eskainiko dute, arratsaldeko 19:30ean, Altzako Herri Ikastetxean.

Maiaren ideia batean oinarrituta, eta Amurizaren laguntzaz, XX. mendean Euskal Herrian izaniko gertakari garrantzitsue-



MONIKA DEL VALLE

Joxerra Garziak hitzaldia emango du bihar, Txalaka Elkarteak antolatutako bertso astearen barruan.

nen kronika egiten dute, garai horretako bertsolarien paperak interpretatuz.

Azkenik, larunbatean, bertso-asteari behar den amaiera emateko, bertso-afaria antolatu du Txalaka Elkarteak bere egoitzan. Hala, gaueko 21:00etatik aurrera, afari ederra dastatzeaz gain, Jokin Soroazabal eta Jexux

Mari Irazu bertsolari gazteek beren kantuekin jarriko duten giro alaiatz gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.

Bergara Beunzaren irudiak.

Apirilaren 16a arte izango dira ikusgai, Tafallako Kultur Etxean.

ZUMAIA. Nicolas Albaren eskulturak. Apirilaren 12a arte izango dira ikusgai, Oxford aretoa.

ikastaroak

BILBO. Tango ikastaroak. Cafe Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiraleroko eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera.

'Ardatz euromediterranearra: Pasado y futuro del mundo árabe'. IPESek antolatutako hitzaldi sorta apirilaren 8tik maiatzaren 13ra, Helduentzako Unibertsitatean, garai batean Zazpikaleetako gaztetxea

izandakoan. Izena emateko azken eguna apirilaren 10a da. Matrikula: 40 euro, 18 euro ikasle eta langabeentzat. Informazio gehiago, 94-4790430 telefonon.

Abesteko ikastaroa. San Frantzisko auzoan. Ikastaroa dohainik izango da, eta izena emateko azken eguna apirilaren 12a.

BERGARA. Zaharberritzeko ikastaroa. Apirilaren 22an hasiko da. Izena emateko, arratsaldeko 17:00etan, Jardun elkarte bulegoan.

IRUÑEA. Hitano ikastaroa. Astearte eta ostegunetan emango da ikastaroa, 20:00etatik 22:00etara, Iruñezar Euskaltegian.

OÑATI. Malabar ikastaroa.

Apirilaren 15etik 26a arte izango da, Olarako dorretxean. Izena emateko 12 euro ordaindu behar dira, eta azken eguna apirilaren 12a izango da. **Funky eta hip-hop dantza saioa.** Apirilaren 27an egingo dute Olarako dorretxean. Izena emateko: 3 euro. Azken eguna apirilaren 23a da. Izaskun Forkada izango da irakaslea. **URRETU. Txalaparta ikastaroa.** Apirilaren 20an hasiko da Pagoeta antzokian, larunbatero San Joan eguna arte. Izena emateko azkeneko eguna apirilaren 20a.

lehiaketa

BASAURI. Ipuin erotikoen VII. lehiaketa. Apirilaren 23a arte lanak

eman daitezke Euskarabila elkartera. Lan guztiek euskaraz eta argitaragabeak izan beharko dute. Bi eta hamar orrialde artekoak eta ipuin erotikoen eskatzen dira. Honako helbide honetara bidali: Euskarabila ipuin erotikoen 7.lehiaketa, Euskarabila elkarte, 146 posta kutxa, 48.970 Basauri. Lehenengo saria 365 eurokoa da, eta bigarrena 245 eurokoa.

BEASAIN. V. Literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat. Narratibiko lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoa eta euskaraz sortuak. Lanak entregatzean 35 urte bete gabe izan behar ditu egileak, eta

aurretik bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Egitasmoak 2002ko uztailaren 1a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: V. Igartza Literatur Sorkuntzako Beka, Euskara zerbitzua, Udaletxea, Loinazko San Martin Plaza, 20.200, Beasain.

SOPELA. Esaera zaharren IX. txapelketa. Sopolako AEK Nikola Euskaltegiak antolatuta, apirilaren 27an egingo da, larunbatean. Parte hartu ahal izateko 2,3 edo 4 lagunek taldeak osatu beharko dira, eta izena apirilaren 22a baino lehenago eman beharko da. Telefono zenbakia honako hau da: 94 676 48 76. Posta elektronikoa: nikola@aekanal.net